

UDALEKO AGENTE LEHEN BI PLAZA BETETZEKO BARNE PROMOZIOKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da udaltzaingoan hutsik dauden Agente Lehen 2 plaza betetzea, barne promozioan eta lehiaketa-oposizio bidez.

Lanpostua sailkapeneko C1 taldekoa da.

Halaber 3. hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa du.

Lanegunak eta ordutegia Udalak urtean urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

2.- Betekizunak

Egiteko orokorra:

— Polizia egitekoek eskatzen duten zeregin exekutiboak betetzea, bai eta zerbitzu operatiboan dauden Eskalako funtzionarioetako baten edo gehiagoren aginduak ere.

Zeregin esanguratsuenak:

- Zerbitzuak planifikatzea udaltzainburuarekin batera.
- Udaltzainburuak emandako aginduen arabera koordinatzea zerbitzuak.
- Zerbitzuko gorabeheren berri ematea buruari.
- Larrialdietan zerbitzuak antolatzea.
- Zerbitzuaz eta bere aginduetara dauden agenteez erantzutea.
- Udaltzaingoaren arlokoa izanik, goikoek agintzen dioten beste edozein lan.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) 18 urte beterik izatea eta 32 urte bete gabe izatea. Hala ere, adin mugarik altuena Udal Administrazioan egindako zerbitzuekin -Udal Polizia Kidegoetan- konpentsatu ahal izango da.
- b) Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den tituluaren jabe izatea.
- c) 3. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa eta derrigortasun data betetakoak izanik..
- d) Gutxieneko garaiera: gizonezkoek 1,65 eta emakumezkoek 1,60.
- e) Deialdi honetako II. eranskinean aipatzen diren Medikuntzako Bazterketen koadroan sarturik ez egotea.
- f) Engainuzko delituagatik kondenatu ez izatea, Herri Administrazioaren zerbitzutik bereizturik ez egon izana, eta egiteko publikoak burutzeko ezgaiturik ez izatea.Hala ere, birgaitzearen onura aplikagarri izango da arau penal eta administratiboekin bat etorriz, baldin eta hautagaiak dagokion agiri ofizialaren bidez egiaztatzen badu.
- g) A2 , B klaseko edo baliokidea den gidatzeko baimenaren jabe izatea, eta lehentasunezko ibilgailuak (BTP) gidatzeko baimena izatea, Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duen maiaztaren 30eko 772/1997 Errege Dekretuaren arabera.
- h) Nazionalitate espainiarra izatea.

i) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Herriko Polizi Kidegoren batean sartzeko hautespen-prozesutik baztertutakoa ez izatea, non eta baztertzea aitortu zenetik zigorraren iraungipen-epea adinako aldia ez den igaro.

j) Bergarako Udaleko udaltzaingoan karrerako funtzionario izatea agente lanetan eta 2 urteetan aritu izana.

Instantziak aurkezteko epea amaitzen den egunean bertan izan beharko dira lehen aipatu diren baldintza guztiak

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Ereduak Bergarako Udaleko Erregistroko Bulegoan emango dituzte.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez daitezten:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte (fotokopiak konpultsatua izango dira):

— Nortasun-agiriaren fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

— Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia, adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du kasu guztietan, bestela ez dira baloratuak izango.

Lehiaketaldian aurreikusitako meritua baloratzeko derrigorrezkoa izango da aurkeztutako dokumentazioak zalantzarik ez sortzea eta aurreikusten diren baremoak aplikatzeko nahikoa izan beharko du.

c) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Euskal Autonomia Erkidego zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 eguneko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 legearen 38.4 artikuluan adierazi bezala, Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkez daitezke. Bergarako Udaleko Alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketan egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan jarriko da ikusgai. Udalak 10 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrenda, besterik gabe, behin betikotzat joko da erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrenda onetsiko du Udalak, eta hura ere adierazitako moduan argitaratuko du.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da onartuen eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

a) Honela eratuko da epaimahai kalifikatzailea:

Lehendakaria: - Alkateak izendatzen duena.

Bokalak:

- Ertzaintzaren Akademiako ordezkari bat.
- HAEeko ordezkari bat, euskara proba egiteko.
- Bergarako Udaleko Udaltzainburua.
- Beste Udal bateko Udaltzainburua.
- Enpresa Komiteko ordezkari bat..

Idazkaria:

- Udaleko idazkaria edo hark delegatutako funtzionarioa.

Titularrekin batera izendatu behar diren ordezkoek ere osatuko dute epaimahaia.

Iritzia ematea eta botoa ematea izango dute epaimahaiko kide guztiek, epaimahairen idazkariak izan ezik, honek ez baitu botatzeko ahalmenik. Bertaratutako botodunen gehiengoaz erabakiko du epaimahaiak, eta parra eginez gero, epaimahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Udalan presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

Epaimahaia osatu eta jardunari ekin ahal izateko, lehendakaria eta idazkaria eta, gutxienez, epaimahaiko kide titular edo ordezkoen erdia bertaratu beharko da, edozein kasutan gutxienez ere hiru kide bertaratu beharko dielarik.

Arau hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak erabakiko ditu epaimahaiak, eta aurreikusi ez diren kasuetan zer egin erabakiko du.

Egoki iritzitako probetan, aholkulari adituak ekarri ahal izango ditu epaimahaiak. Euren espezialitate teknikoetan baino ez dute lagunduko aholkulari horiek.

Dagozkion neurriak hartuko ditu epaimahaiburuak, epaimahairen aurrean idatzizkoak izan eta irakurri behar ez diren Oposizioaren ariketak hautagaien izena jakin gabe zuzenduko direla bermatzeko.

Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezeko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

Jarduketa prozedura: a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere plaza horiek beteko direla ziurtatzeko xedez, hautatu diren izangai batzuk izendapena edo jabetza baino lehenago uko egiten badute, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari, izan ere, berauek karrerako funtzionario izendatu daitezke. Ariketa baztertzailerak gairitu dituztenak deitu diren lanpostuak baino gehiago badira, lanpostua bete ondoren kontratatu gabe gelditzen direnak antzeko lanpostuak aldi batez betetzeko erabiliko dira (lan poltsak).

d) Izangai batek ere gairitu ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Ariketak epaituko dituen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Lehenengo proba: Teorikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailerak.

Idatziz erantzungo zaio galdera ugariz osatutako galdetegi bati, hainbat erantzun dutenak, eta horietako bakarra zuzena, oposizioaldiko gaien programan datozen gaietarako.

Proba hau 0 puntutik 20ra baloratuko da, eta gutxienez 10 puntu lortzen ez dutenak kanpoan geratuko dira.

Bigarren proba: Ezaguera praktikoak. Nahitaezkoa eta baztertzailerak.

Idatziz garatu beharko dira kasu praktiko eta/edo teoriko-praktiko bat edo batzuk, gaien programako edukiekin lotutakoak (Eranskina) eta/edo lanpostuaren egitekoekin lotutakoak.

Epaimahaiak proposatuko du proba, egin baino lehentxeago, eta hark jarritako iraupena izango du. Proba hau 0tik 45 puntu arte baloratuko da, eta gutxienez 22,5 puntu lortzen ez dutenak kanpoan geratuko dira.

Hirugarren proba: Test psikoteknikoak. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Adimen eta nortasun gaitasuneko testak egingo dira, lehen agente kategoriako egitekoak betetzeko aldagai potentzialak ebaluatu ahal izan daitezen.

Halaber ezaugarri pertsonalak ebaluatuko dituen elkarrizketa froga honen atal bat izango da eta epaimahaiak trebetasun sozialak, egoeretan zelan jardun, arrazoitzeko gaitasuna, e.a. baloratuko ditu.

Proba hau 0tik 30 puntu arte baloratuko da, eta gutxienez 15 puntu lortzen ez dutenak kanpoan geratuko dira.

Laugarren proba: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da, Epaimahaiak zehazten duen eran. Azterketa HAEEn bulegoetan egingo da, erakunde horrek proposatutako egun batean.

Proba hori gai edo ez gai kalifikatuko da, eta gaitasun deklarazioa behar izango da proba gainditzeko.

Ez dute proba hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenek 3. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, beti ere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitze apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau proba hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

8.- Merezimenduen fasea

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

1. Administrazio Publikoan Lehen Udaltzain (Kaboa) moduan eskainitako zerbitzuak. *Eguneko 0,005 punturekin baloratuko da, **gehienez ere 20 puntu arte.***

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretiko aldiak baino ez dira baloratuko, eta dedikazioaren proportzioan.

2. Administrazio Publikoan Udaltzain moduan eskainitako zerbitzuak. Eguneko 0,00125 punturekin baloratuko da, **gehienez ere 5 puntu arte.**

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretiko aldiak baino ez dira baloratuko, eta dedikazioaren proportzioan

Ez da baloratuko, ezta ere, deialdian parte hartzeko derrigorrezkoa den gutxienezko epealdia.

3. Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandako ikastaroak edo mintegiak egitea, eta bestelako prestakuntza-jarduerak egitea (bekadun gisa, praktikaldian, etab.), lanpostuarekin zerikusirik badute, **gehienez ere 3 puntu** arte balioztatuko da. Ikastaroek gutxienez 10 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko, 10 ordukoari 0,10 puntu emango zaio eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.

Merezimendu horiek laugarren oinarriak jasotakoari jarraituz egiaztatu beharko dira.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bat edo gehiago egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba psikoteknikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Teoria proban puntu-kopururik handiena ateratzea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienera.

Era berean, hautatutako izangaien izena argitaratuko du.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari igorriko dio akta, behar den izendapena egin dezan.

Proposatutako izan diren izangaiak, izendapena argitara ematen denetik hasi eta 20 egun naturaleko epean, lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko dituzte.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez badituzte, edo eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez badute, ezingo dira kontratatuak izan, eta bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

11.- Kontratazioa- Prestakuntza eta Praktikaldia

Hautaketa sistema osatuko dute prestakuntzako ikastaroak eta praktiketakoaldiak eginez, betiere hautaketa prozesuko beste fase bat bezala.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia hasteko zehaztuta dagoen eguna jende aurrean jarriko da udaleko iragarki taulan.

Prestakuntza ikastaroak eta praktikaldiak derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira, banan-banan hartuta ere. Izangaiaren batek biotako bat edo biak egiten edo gainditzen ez baditu, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da berehala, eta kategoria berrian sartzeko eduki zitezkeen eskubide guztiak galduko ditu.

11.1. - Prestakuntza ikastaroa.

Prestakuntzako ikastaro bazterzailea Euskal Herriko Polizia Akademiak antolatuko du. Izaera bazterzaileko ikastaro akademiko bat izango da, eta Ikasketa Planari jarraituz eta jartzen den epean.

Prestakuntza ikastaroak dirauen bitartean kontrastatu eta osatu egingo da Lehen Agentea lanbidea betetzeko bakoitzak duen gaitasunaren ebaluazioa, hautaketa sisteman eginikoa.

11.2.- Praktikaldia.

Praktikaldiak urtebete iraungo du, Bergarako Udalaren bulegoetan bertan, eta izangaiaren prestakuntza osoa lortzeko egokiak diren jarduerak garatuko dira eta bereziki udaltzaingoaren egitura eta zerbitzuen funtzionamenduaren berri emango da.

Ebaluazioa egingo da Udaltzaingoko oinarrizko eskalako Lehen Agente mailari dagozkion eginkizunak egiteko izangaiak adierazten duen egokitasunaren arabera, kontuan hartuta zereginak egitean agertutako lan eraginkortasuna, eta, hain zuzen ere: Zerbitzuaren aurreko jarrera, bere nagusiekiko harremanak eta diziplina, aginterako gaitasuna eta koordinatzeko, etekina eta erantzukizuna, kokapen zentzua, emozio oreka eta moldakortasuna. Hauek guztiak baloratuko dira argi antzemandako eta zehatz deskribaturiko erreferenteekiko elkarketagatik.

Prestakuntza eta praktikaldiari buruz organo erantzuleak esleitutako kalifikazioak lotesleak izango dira Udalbatzako buruarentzat, horri baitagokio karrerako funtzionario izendatzea, baina berraztertu egin dezake hori, administrazio jardunbidea arautzen duen araudian aurreikusitako eran.

12. Lan-Poltsa

Lanpostua eskuratu ez, baina oposizioa gainditzen duten hautagaiekin agente lehenerako aldi-baterako premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da.

13.- Dokumentazioa Itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

14.- Prozesuaren Argitalpenak.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) udaleko langileen iragarki tauletan argitaratuko dira.

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

15. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jardura ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

16. Inpugnazioa.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.

ERANSKINA

GAI ESPEZIFIKOAK

1. Trafikoari buruzko legeria. Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen artikuluen testua.
2. Edari alkoholikoei buruzko arauak. Behartutako pertsonak. Odoleko alkohol tasak. Detekzio probak. Agintaritzako agentearen eginbideak. Ibilgailua ibilgetzea.
3. Garraioa: Erregulatzea. Bidaiarien garraio publikoak. Merkantzien garraioa. Garraio pribatuak. Beste garraio mota batzuk. Errepidetik merkantzia arriskutsuen garraioa.
4. Trafiko istripuak: Istripua gertatzen denean dauden arauak. Erantzukizun objektiboa zirkulazio eremuan. Delituzko portaerak.
5. Zuzenbide penala eta prozesala: Delituak eta hutsegiteak. Hutsegiteak eta haien penak. Erantzukizun kriminala eta horien inguruabar aldatzaileak. Funtzionarioen delituak, kargua erabiltzen dutenean.
6. Delitu motak: Pertsonen aurkako delituak. Askatasun sexualaren aurkako delituak. Ohorearen aurkako delituak. Askatasunaren eta segurtasunaren aurkako delituak. Jabetzaren aurkako delituak. Trafikoaren segurtasunaren aurkako delituak. Ondarearen eta ordena sozio-ekonomikoaren aurkako delituak. Segurtasun kolektiboaren aurkako delituak: Txikizioen, suteen eta osasun publikoaren aurkako delituak. Administrazio Publikoaren aurkako delituak. Justizia Administrazioaren aurkako delituak.
7. Prozedura Kriminaleko Legea: Salaketa. Kereila. Polizia judiziala. Delitua egiaztatu eta delinkuentea aurkitzea. Zitazioa, atxiloketa, behin-behineko kartzelaratzeta. Atxilotu eta presoan defentsa, asistentzia eta tratamendua: Habeas Corpus. Itxita dagoen leku batean sartzea.
8. Hiritarren Segurtasunari buruzko 1/92 Legea.
9. Delinkuentzia: Kontzeptua. Oraingo egoera. Kausak eta prebentzioa. Prebentzio gaietako jardunak. Kriminologia: Kontzeptua, xedea, joerak eta eskolak.
10. Babesgo zibila. Eusko Jaurlaritzaren 153/97 Dekretua, ekainaren 24koa, Babesgo Zibilari buruzkoa.
11. Atzerritarren Legea: Xedapen orokorrak. Eskubideak eta betebeharrak. Sartzeko araubidea. Egoera. Lana eta ezartzea. Irtetea. Araubide berezia. Arau hausteak eta santzioak. Bermeak eta araubide juridikoa.
12. Poliziaren egitekoak. Erakundeen egitekoak. Laguntzeko egitekoak. Udaltzainak polizia judizial moduan. Polizia salaketa. Polizia txostena. Polizia patruila.
13. Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legea, uztailaren 17koa: Euskal administrazioen kolaborazioa eta lankidetzeta. Xedapen orokorrak. Kode deontologikoa. Euskal Herriko Poliziaren kidegoetan sartzea. Funtzionario izaera hartu eta galtzea. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Egoera administratiboak. Diziiplina araubidea. Udaltzainen xedapen orokorrak. Udaltzainen koordinazioa.
14. Udalerrien esku hartzea jarduera pribatuan. Administrazio lizentzien azterketa berezia. Ordenantzak, Erregelamenduak eta Bandoak.
15. Poliziaren egiteko administratiboa. Udaltzaingoa eta herritarrekin dituen harremanak.

BASES QUE REGIRÁN LA CONVOCATORIA PARA CUBRIR POR PROMOCIÓN INTERNA DOS PLAZAS DE AGENTE PRIMERO MUNICIPAL

1.- Objeto de la convocatoria

Es objeto de la presente convocatoria la cobertura de dos plazas vacantes de Agente Primero en la Policía Municipal, mediante promoción interna y concurso-oposición.

El puesto de trabajo está incluido en el grupo de clasificación C1.

Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 3, preceptivo.

El calendario y horario laboral serán los fijados anualmente por el Ayuntamiento, adecuándose siempre a las características de la plaza y a las necesidades del servicio.

2.- Funciones a desarrollar

Función general:

- Cumplir las tareas ejecutivas que demanden las funciones policiales, así como las de mando de uno o más funcionarios de la Escala en servicio operativo.

Tareas más significativas:

- Planificar los servicios junto con el jefe de la Policía Municipal.
- Coordinar los servicios conforme a lo ordenado por el jefe de la Policía Municipal.
- Comunicar las incidencias del servicio a su superior.
- Organizar los servicios en situaciones de emergencia.
- Responsabilizarse del servicio y de los agentes que estén bajo su mando.
- Cualquier otra tarea que le encomienden sus superiores dentro del área de la Policía Municipal.

3.- Requisitos de los aspirantes

Los aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el concurso:

- a) Tener 18 años cumplidos y no haber cumplido aún 32. De todos modos, el límite máximo de edad podrá ser compensado con servicios efectuados en la Administración Municipal en cuerpos de Policía Municipal.
- b) Estar en posesión del Graduado Escolar, FP-I o titulación equivalente.
- c) Nivel de euskera correspondiente al Perfil Lingüístico 3, preceptivo, con fecha de preceptividad vencida.
- d) Altura mínima: hombres, 1,65; mujeres, 1,60.
- e) No hallarse incurso en el cuadro de Exclusiones Médicas que figuran en el Anexo II de la presente convocatoria.
- f) No haber sido condenado por delito doloso, ni haber sido separado del servicio de la Administración Pública, ni haber sido inhabilitado para el ejercicio de la función pública. Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquella se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte del aspirante.

g) Estar en posesión del carné de conducir de clase B o equivalente, del A2, así como de la autorización BTP para conducción de vehículos prioritarios, de acuerdo con el Real Decreto 772/1997, de 30 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento General de Conductores.

h) Ostentar la nacionalidad española.

i) No haber sido excluido de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de la Policía Local del País Vasco, por la comisión de falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un período de tiempo equivalente a su plazo de prescripción, contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

j) Ser funcionario de carrera del Ayuntamiento de Bergara en la Policía Municipal como agente y haber completado dos años de servicio

Se deberán cumplir todos y cada uno de los requisitos enumerados a la fecha de la finalización del plazo de presentación de instancias.

4.- Instancias

Las instancias se realizarán en ejemplares oficiales y normalizados. Esos ejemplares se encuentran a disposición de los interesados en las oficinas del Registro del Ayuntamiento de Bergara.

Las instancias para tomar parte en el concurso-oposición se dirigirán a la Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Bergara y deberán cumplir los siguientes requisitos para que no sean rechazadas:

a) Los aspirantes deberán manifestar que reúnen todos y cada uno de los requisitos enumerados en la base tercera al día de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Junto con la instancia, deberán presentar la siguiente documentación (las fotocopias deberán ser compulsadas):

- Fotocopia del DNI o documento de identidad.

- Fotocopia de la titulación exigida para tomar parte en la convocatoria.

— Documentos que acrediten los méritos expuestos en la instancia para que sean valorados en la fase de concurso.

Para la acreditación de la experiencia laboral se deberán presentar los certificados correspondientes expedidos por la Administración en la que se ha trabajado, en los que se especificará la duración del contrato y las funciones desarrolladas en el puesto de trabajo.

